



**RASFF-EKO ALERTAK ETA**  
**JAKINARAZPENAK**  
**2006ko 1. LAUHILEKOA**


**elika**

Fundación Vasca para la  
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien  
Segurtasunarako  
Euskal Fundazioa

2006. urteko lehenengo lauhilekoan, Europako Informazio Azkarreko Sistemak (RASFF) guztira **795 alerten eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura-iturriei dagozkien portzentajeak hurrengoak dira:

Kutsadura-iturriak	Portzentajea
Mikotoxinak / biotoxinak	%44
Kutsadura kimikoa	%30.5
Kutsadura biologikoa	%14.5
Metal astunak	%6
Pestiziden hondakinak	%5



Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasuen **%85,5ean**, kutsadura **Aflatoxinek** eragin dute eta, horrelakoetan, **pistatxoek** kutsaduren **% 41** eragin dute. Bestalde, kasuen **%89an** pistatxoak **Iranetik** zetozen. Bigarren produktu garrantzitsua **kakahuetea** izan da. Horiek aflatoxinek eragindako kutsaduren **%32** eragin dituzte, eta **Txina** izan da jatorrizko herrialdea kasuen **%36an**.


Kutsadura biologikoei dagokienez, **Salmonella sp.**k kutsaduren **% 43** eragin ditu: Kutsaduren **% 34 txerri-haragien** artean gertatu dira. Horrelakoetan, **Europan** gertatu dira kasu guztiak (**%100**). Eta kutsaduren %30 belarretan eta espezieetan. Horrelakoetan, kasu gehienak Asian gertatu dira (**%86,5**). **Escherichia colik** kutsaduren **%10** eragin ditu. Horrelakoetan, muskuiluak izan dira protagonistak (**%64**).

Kutsadura kimikoari dagokionez, kasuen **%51n Koloragarriak eta Gehigarriak** izan dira eragile nagusiak, **gehigarriak** kasuen %48an errudunak izanik. Horrelakoetan, **zukuak eta frutazko karameluak** izan dira garrantzitsuenak (**%42**), eta horien **%60**

Europakoak izan dira. Bestalde, **Sulfitoak** izan dira kutsadura kimikoen eragileak, kasuen **%16an**; eta horien **%38.5ean**, Hegoamerikako ganbak izan dira eragile zuzenak **%53an**. Bestalde, **%38,5ean** fruta lehorrak izan dira eragile zuzenak. Azken hauek ia gehienak **Asiakoak** izan dira (**%93**).

<b>Mikotoxinak</b>	349	<b>Aflatoxinak</b>	299 (%85.5)	pistatxoak	121 (%41)	Iran	108 (%89)
				kakahueteak	95 (%32)	Txina	34 (%36)
						Argentina	12 (%12.5)
<b>Kutsadura biologikoa</b>	116	<b>Salmonella sp.</b>	50 (%43)	txerria	17 (%34)	Europa	17 (%100)
				espeziak, belarrak	15 (%30)	Asia	13 (%86,5)
		<b>Escherichia coli</b>	11 (%10)	muskui luak	7 (%64)	Europa	7 (%100)
<b>Kutsadura kimikoa</b>	244	<b>Koloragarriak eta gehigarriak</b>	124 (%51)				
		Gehigarriak	60 (%48)	zukuak eta frutazko karameluak	25 (%42)	Europa	15 (60 %)
		<b>Sulfitoak</b>	39 (%16)	fruta lehorrak	15 (%38.5)	Asia	14 (%93)
				ganbak	15 (%38.5)	Hegoamerika	8 (%53)

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdea hurrengoak izan zen:



**Asiari** dagokionez, kutsaduren % 33k **Iranen** izan zuten jatorria, ondoren Txinan %20k. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien eragin zituzten herrialdeak **Turkia** (%22) eta **Espainia** (%19) izan ziren.

Azkenik, Afrikako kontinentean, **Ghana eta Egipto** nabarmendu behar ditugu (**%29 eta %25**, hurrenez hurren).

Azkenik, Europako Erkidegoaren barruko jakinarazpenen portzentajea hurrengoak izan zen:

### jakinarazpenen berri eman zuten herrialdeak

